

Hazparneko herriak antolatu eskolaldi inguruko zerbitzuen* barne araudia

*Eskolaldi inguruko aisialdi harrera: Eskolaldi inguruko aisialdi harrera adingabeen heziketarako harrera kolektiboa da 3 eta 15 urte arteko adingabeentzat, eskolako egunetan antolatua, baita ere asteazkenetan, eskolako oporraldietatik kanpo.

Aitzinsolasa

Hazparneko Herriko Etxeak zerbitzu zenbait proposatzen ditu Jean Verdun eskolako ama eskolako eta lehen mailako haurrentzat: eskolaldi inguruko harrera, kantina. Herriko eta inguruko herrietako haur guzientzat JOSTA LEKU aisialdi zentroa ere antolatzen du. Zerbitzu horien helburua da kalitatezko harrera proposatzea irakaskuntza denboraren inguruan. Hazparneko herriak bere Hezkuntza Proiektuan (LHP) lehen haurtzaroaren, haurtzaroaren eta gaztaroaren alorreko ekintzarako lehentasunezko ardatzak finkatu ditu.

Herriko Etxeak hautatu du Pirinio Atlantikoetako Gizarte Kohesiorako Departamenduko Zuzendaritzari deklaratzeko eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko zerbitzu guztiak JOSTA LEKU "Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroa" izendapenarekin. Ondorioz, harrera horiek Adingabeen Harrera Kolektiboen araudiaren menpe dira; honek nahitaezko zaintza-tasak inplikatzeko ditu, langile diplomadunenen gutieneko ehunekoa, herriko hautetsiek idatzi Hezkuntza Proiektua, Aisialdi Zentroko zuzendariak animazio taldearekin bat idatzi Proiektu Pedagogikoa baita ere proiektuei dagokien emaitza betebeharra harrera kalitateari eta jardura aniztasunari begira.

Akademiako Ikuskaritzak eta Gizarte Kohesiorako Departamenduko Zuzendaritzak herria sostengatzen dute. Familien Laguntza Kutxak ere teknika eta finantza laguntza ematen du.

1. kapitulua: Izena emateko eta zerbitzuaz baliatzeko baldintzak

Hazparneko Herriko Etxeak onespena badu ama eskolako eta lehen mailako eskolaldi inguruko harrerak egiteko baita ere asteazkenetako harrera.

1. artikulua: Izen ematea nahitaezkoa

1.1 : 1. Izen emate dosierra

Araudiaren arabera, eta erantzukizun arrazoiengatik, haurra ez da hartuko aitzinetik izena emana ez baldin badu: izena ematea **nahitaezkoa** da, eta Gazte Zerbitzuan eman behar da. Familiei izen emate fitxa bat betetzea galdeginen zaie argibide orokorrak biltzeko, bereziki haurrari buruz, haren familiari eta osasunari buruz. Nahitaezko frogagiriak ere galdeginen dira (familiako liburuxka edo sortze-agiria, bizileku-frogagiria, FaLK/MSAko familia koziante-agiria, haurraren osasun-liburuxka...).

Familiaren egoera ez baldin bada aldatzen, familiek ez dituzte urtero frogagiri guziak eman beharko.

Urtero, familia bakoitzak, beharrez, bere argibideak eguneratu beharko ditu familia-atariaren bidez.

Alde bateko izen ematea **kontuan hartuko da dosierra osoa izanen delarik bakarrik eta izen ematearen ardura duten langileek ontzat eman eta.**

Burasoek haurraren izena ematen ahalko dute eskolaldi inguruko harreretarako eta asteazkenetarako, ikasturte osorako.

Familia-atariaren bidez erreserbatu harrera guziak ordaindu beharko dira, kasu hauetan salbu:

Eskola egunetako:

- Gazte Zerbitzuari idatziz seinalatuko zaiolarik harrera eguneko 8:30ak aitzin.
- Haurraren eritasunagatik, ospitaleratzeagatik edo gertakari larriagatik, mediku-agiri bat erakutsirik edo burasoen ohorean bermatu agiria igorritz Gazte Zerbitzuari 2 egun barne.
- Familiako heriotza, burasoen ohorean bermatu agiria erakutsiz.

Asteazkenetarako

- Gazte Zerbitzuari idatziz seinalatuz gehienez 48 oren gabe edo familia-atarian izena kenduz.
- Haurraren eritasunagatik, ospitaleratzeagatik edo gertakari larriagatik, mediku-agiri bat erakutsirik edo igorritik Gazte Zerbitzuari, 2 egun barne.
- Familiako heriotza, burasoen ohorean bermatu agiria erakutsiz.

1.2 : Egoera aldaketa

Familiei galdegina zaie Gazte Zerbitzuari lehenbailehen jakinaraztea etxe aldaketa, telefono zenbaki aldaketa, familia egoera aldaketa, izen emate aldaketa oro. Argibide horiek baitezpada eguneratuak izan behar dira: larrialdi batean gertatuz gero, nahitaezkoak dira familiak abisatzeko.

Horretarako, burasoek aldaketak egin behar dituzte:

- E-postaz: guichet-unique@ville-hasparren.fr
- Hazparneko Herriko Etxearen webguneko familia-atarian, sartze kodearen bidez: www.ville-hasparren.fr

2. artikulua: Harrera Proiektu Indibidualizatua (HPI) duten haurren harrera

2.1: Mediku-tratamendua duen haur baten harrera

Ez zaio erremediorik ematen ahal haur bati, salbu:

- HPI bat baldin badu eskolako medikuak edota etxeko medikuak emanik
- Hartu beharreko dosiak eta tenoreak zehazten dituen mediku ordenantza bat baldin badu. Erremedioak jatorrizko ontzian izan behar dira, erabilera oharrarekin barnean, baita ere haurraren izena eta deitura ontziaren gainean idatzirik.

2.2: Elikadura HPI bat duen haurraren harrera.

HPI bat duten haurren familiek izen emate fitxan jakinarazi behar dute. Zaintza berezia behar duten haurrak onartuko dira, baldin eta HPI bat baldin badute.

Erregimen berezia duten haurren izen ematea onartuko da etxeko medikuak izenpetu HPI bat izanez gero bakarrik, Gazte Zerbitzuarekin harremanetan. (Kantinarako izenpetu HPI batean eskolaldi inguruko beste jarduera batzuk ere barne har ditzake). HPIrik ez duten haurren kasuan, Gazte Zerbitzuak Eskolaldi Inguruko Harrera Proiektu Indibidualizatua (EIHPI) proposa dezake.

3. artikulua: Estudio zaindua (CPTik goiti)

Hazparneko Herriko Etxeak 40 lekuko estudio zaindua proposatzen du. Haurrek etxeko lanak egiteko parada dute animatzaile batek zaindurik.

Ikasleak mailaka bilduak dira. Estudio zaindua ukanen dute astean bi aldiz.

Estudioaren mugak ez baldin badira errespetatzen eta haurrak ez baldin badira zerbitzu horri jartzen, Herriko Etxeak eskubidea du haurra ez estudio zainduan onartzea.

Familia-atariaren bidez ematen da izena estudio zainduan:

1. "Estudio zaindua" jardueran izena eman.
2. Nahi diren egunak erreserbatuko dira epeka edo urteko erreserbatzeko posibilitatearekin. Leku baino izen emate gehiago baldin bada, haurrak izen emateko ordenaren arabera onartuko dira.

2. kapitulua: Irekitze epeak eta tenoreak

Herriko Etxeak ditu eskolaldi inguruko jarduerak antolatzen Hezkuntza Ministerioaren egutegiaren arabera. Izena eman duten haurrak Herriko Etxeko taldearen ardurapean dira.

4. artikulua: Eskolaldi inguruko harrerak

4.1 : Goizeko eskolaldi inguruko harrera

Goizeko harrera 7:30etik goiti egiten da, 8:20ra, astelehenetik ostiralera.

- Haurra heltzean: arduradunak haurra harrera-animatzailearekin uzten du.
- Harreraren bukaera: eskolako ateak irekitzean, haurrak irakasleen zaintzapean eta ardurapean dira. Harreraren ardura duten animatzaileek, beharrez, zaindu dituzten hurrei buruzko argibideak transmititzen dituzte.

4.2 : Arratseko eskolaldi inguruko harrera

Arratseko harrera 16:30etik goiti egiten da 18:30era, astelehenetik ostiralera, asteazkenenetan salbu.

- 4.2.1 Haurra heltzean: klase bukaeran, herriko langileak dira ama eskolako hurrez arduratzen haien harrerara laguntzeko. Gauza bera lehen mailako eskolakoentzat.
- 4.2.2 Harreraren bukaera: haurrak bakarrik sar daitezke etxera, baldin eta burasoek baimena emana badute izen emate fitxan edo ateratzeko baimen inprimakia bete badute (Hazparneko Herriko Etxearen webgunean atzeman daiteke).
- 4.2.3 Beste haurrak baimena duten pertsona batekin joanen dira (fitxa bat bada betetzeko, Hazparneko Herriko Etxearen webgunean atzeman daiteke). Kasu horretan, pertsonak nortasun agiria erakutsi beharko die harreraz arduratzen diren animatzaileei.

Egituraren funtzionamendu onerako, familiei galdegina zaie heste tenoreen errespetatzea.

18:30etik goiti helduz geroz, burasoei galdegina zaie harrera deitzea **05.59.70.14.82** zenbakira.

30 minutu baino gehiagoren buruan, herriko langileek ezin izan badute burasoei harremanetan sartu, haurra agintari eskudunarekin utziko dute (jendarmeria).

5. artikulua: Asteazkeneko harrera

Josta Leku aisialdi zentroa **asteazkenetan** irekia da eskola denboran. Jean Verdun eskolan berean iragaten da.

Aisialdi zentroa 7:30etik 18:00etara irekia da:

- 7:30 – 9:00: haurren harrera
- 9:00 - 16:30: animazioak
- 16:30 – 18:00: haurren partitza

Haurra uzten duen burasoak edo helduak nahitaez haurra lagundu behar du barneraino eta animatzaileei haurra hor dela erran.

Berant heltzeko edo goiz partitzeko (aurreikusi tenoretarik kanpo), baimen berezi bat behar da galdatu aisialdi zentroko zuzendariari: 05.59.70.14.82 edo 06.24.84.46.03.

Asteazkeneko harrera egun erdiko erreserba daiteke. Hona haurrak errezibitzeko tenoreak egun erdiko heldu direnean:

- Bazkaria aitzin: 11:30/12:00
- Bazkariaren ondotik: 12:45/13:15

Haurrak ez dira hartuko 9:00etatik goiti.

Haurrak bakarrik sar daitezke etxera, baldin eta arduradunek baimena emana badute izen emate fitxan edo ateratzeko baimen inprimakia bete badute. Etxera bakarrik sartzen ahal ez diren haurrak arduradun batekin baizik ez dira partitzen ahalko edo argibide-fitxan baimendu pertsona batekin.

Harrera zentroa **18:00etan** hesten da. Beraz, haurraren arduradunak antolatuko dira beren haurraren xerka jiteko edo baimendua den pertsona bat haren bila igortzeko, heste tenorea aitzin. Berantean izanez gero, lehenik ahozko ohar bat egiten zaie eta kaieran ezarriko da, eta gero idazki bat igorriko zaio familiari; beharrez, andere auzapezarekin hitzordu bat ukanen du hark oharra egin diezaion.

30 minutu baino gehiagoren buruan, herriko langileek ezin izan badute haurraren arduradunarekin harremanetan sartu, haurra agintari eskudunarekin utziko dute.

6. artikulua: Eskola garraioak

Herriko langileak goizetan eskola garraioa erabiltzen duten ikasleen xerka joanen dira autobusera eta zainduko dituzte irakasleak haietaz arduratu arte.

Arratsetan, eskola garraioa erabiltzen duten haurrak autobusera eramanen dituzte herriko langileek.

Zerbitzu hori urrik da baina familia atarian izena ematean familiek zehaztu beharko dute haurrak eskola garraioa erabiliko duenez.

Eskola garraiorako izen ematea familia atariaren bidez egiten da:

3. Izen ematea "eskolako garraioa" jardueran.
4. Nahi diren egunak erreserbatuko dira, epeka edo urteko erreserbatzeko posibilitatearekin.

3. kapitulua: Fakturazioa eta pagatzeko moldeak

Fakturak izen-emate orrian pagatzaile gisa izendatu haurren arduradunari igorriko zaizkio. Haur batek zerbitzu batean baino gehiagotan izena emana badu, familiak faktura orokor bat errezibituko du. Fakturak Gazte Zerbitzuak ditu egiten. Ordaintzeko epemuga fakturaren gainean zehaztua da. Fakturak ordaindu daitezke:

- mandatuz edo biramenduz Altxor Publikoaren kontu korrontean, Jats karrikan, HAZPARNE.
- linean ordainduz plataforma honen bidez: www.tipi.budget.gouv.fr
- txekez, Altxor Publikoaren izenean, Jats karrika, HAZPARNE
- eskudiruz, Altxor Publikoari, Jats karrika, HAZPARNE.

Familiei galdegin finantza parte hartzea baldintzen arabera egokitua da HAZPARNEKO familientzat. Familia-koizientea kalkulatzeko dokumenturik ez baldin bada, familiaren finantza parte hartzea **prezio gorenaren** arabera kalkulatu da.

Erreserbatu zerbitzu oro fakturatuko da, salbu falta izanik frogagiri bat erakutsiz gero (eritasuna, heriotza bat familian), eta 48 oren gabe familia atarian edo e-postaz ezeztatuz gero.

Baldintza batzuk betez gero, Herriko Etxeak fakturazio aldizkatua plantan ezartzeko parada eskaintzen du bereiziak diren familientzat. Familia horiek fakturazio aldizkatua galdegin behar dute izena ematean.

Herriko Etxeak ditu prezioak finkatzen, Herriko Kontseiluan erabakirik.

Ordaindugabeak gertatuz gero, Altxor Publikoak ditu oroitarazte gutunak igorriko, hark baititu hartzekoak kobratzen. Prozedura horren bidez lansarian edo FaLkeko dirulaguntzan har daiteke dirua.

Ordaintzeko arazoak dituzten familiek auzapezari, GEUZari edo Departamenduko zerbitzu sozialari jakinarazi behar diote lehenbailehen, diren aterabide guziak ikertzeko.

7. artikulua: Erreklamazioa

Faktura eztabaidan ezarritik gero, familiari galdegina zaio Gazte Zerbitzuarekin harremanetan jartzea. Erreklamazioa urte zibil bereko baizik ez daiteke egin. Eskaini zerbitzuaren errealitatea bermatzen duen Gazte Zerbitzua ez baldin bada ados, fakturan agertzen den zenbatekoa zor izanen da.

4. kapitulua: Egituraren barnean errespetatu beharreko arauak

8. artikulua: Erantzukizuna - Asurantzza

Eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko denboretan, izena emana duten haurrak herriko langileen ardurapean dira.

Hazparneko Herriko Etxeak erantzuletasun zibil asurantzza bat hartua du eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko egitura guzientzat.

Herriko Etxearen asurantzak ez ditu indibidualki edo haien artean kolpatuko litezkeen haurrak estaltzen Herriko Etxeak ez baldin badu deus ikustekorik. Beraz, burasoei dute haien haurrarentzat asurantzza hartu behar eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko jardueren kariatara, eta familiako erantzuletasun zibil asurantzza duela segurtatu.

9. artikulua: Andeatzeak

Eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko egoitzaren edo materialaren andeatze ororen kasuan kalte-ordainak galdeginen dira gertatu andeatzeak ordaintzeko.

10. artikulua: Bakoitzaren puskak

Burasoei galdegina zaie haurrak ez daitezen jin diruarekin, bideo joko kontsolarekin, sakelako telefonoarekin, baliozko gauzekin...

11. artikulua: Jantziak eta diziiplina

Haur bakoitzak zaintza-langileen (langile berezituak eta animatzaileak) aginduak zorrozki errespetatu behar ditu. Zaintza-langileak (kantinako langileak, animatzaileak, langile berezituak) errespetatu behar ditu baita ere kideak.

Zaintza-langileek haurrei araudi hau ahoz oroitaraziko die diziiplina-arauak hausten balituzte edo zerbitzuaren funtzionamendu ona trabatzen duten jokamoldeak balituzte.

Arauak hausten segituz gero, eskolaldi inguruko harrerako zuzendaria eta Gazteen eta Hezkuntzaren, ardura duen axuanta haurrarekin eta haren familiarekin elkartuko dira.

Elkarrizketa horretan, gaztigu bat ematen ahalko da arau haustearen arabera:

- idatzizko oharra
- aldi bateko kanporatzea
- behin betiko kanporatzea, urte bukaera arte.

Zaintza-langileek dituzte arau hausteak egiaztatzen eta kaier batean idazten. Larritasunaren eta gertakari errepikakorren arabera, eskolaldi inguruko zerbitzuko arduradunak edo haren laguntzaileak Zerbitzuen zuzendari nagusia eta Gazteen ardura duen axuanta abisatuko dituzte.

Gertatzen diren arau hauste nagusiak:

- kolektibitateko bizitzako arauen ez onartzea: harrabotsa egitea, ez obeditzea, ohar desagokiak
- ontasunen eta pertsonen ez errespetatzea: jokamolde probokatzaileria edo laidogarria; materialaren andeatze ttipiak
- pertsonak mehatxatzea edo ontasunak nahitara andeatzea: eraso fisikoa beste ikasleei edo langileei; materialaren andeatze handiak edo ebastea

12. artikulua: Norberaren irudirako eskubidea

Eskolaldi inguruko jardueren kariatara, haur bakoitza argazkitan hartua edo filmatua izan daiteke. Izen emate dosierrean familiak baimena emanaz gero, argazkiak edo beste euskarriak herriaren komunikaziorako baizik ez dira erabiltzen ahalko (Herriko Etxearen webgunea, herriko kazeta, eskuorriak...). Kontrako kasuan, haurraren irudia lausotuko da.

5. kapitulua: Bestelako argibideak

13. artikulua: Eritasun bat, gorabehera bat edo istripu bat eskolaldi inguruko edo eskolaz kanpoko denboran gertatuz gero

Oharra: Zerbitzuak ez dezake erremediorik edo arta berezi arruntik eman, salbu HPI batek hala aurreikusten badu.

Gertakari arin batengatik, zuzendariak edo haren laguntzaileak familiak izendatu arduraduna berehala abisatuko du, eta honek antolatu beharko du ahal bezain fite haurraren xerka jiteko.

Gertakari larri batengatik, istripua izanik ala ez, haurraren osasuna lanjerean edo arriskuan ezarritz gero, zerbitzuak haurra sokorrien esku utziko du ospitalera edo klinikara eraman dezaten. Legezko arduraduna berehala abisatuko da. Horretarako, beti eman beharko du telefono zenbaki eguneratua, harrera zerbitzu denboran deitzeko gisan.

Eskolaldi inguruko harrera baten kariatara, arduradunak eskolako zuzendaria eta eskolako zerbitzua berehala abisatuko ditu haurra ospitaleratu dela.

14. artikulua: Araudi honen baliozkotasuna

Arau hau indarrean da Herriko Etxean afixatua denetik. Urtero aldatu daiteke.

15. artikulua: Onartzea

Haur batek eskolaldi inguruko egitura batean izena emanez gero, burasoek araudi hau osoki onartzen dute.